




# Isiltasunari

Arantzazu Loidi Garitano

## *Doinua: Gogoratuko zara Hamarreko txikia*

- 1 Lagunaren galdera:  
Zer da **isiltasuna**?  
Gure baitan dagoen  
bideko **laguna**.  
**Beti hor dago baina  
ez da ezaguna**  
jasanezina edo  
ukendu **biguna**.  
**Beti hor dago baina  
ez da ezaguna**  
bakea kendu edo  
ematen **diguna**.
- 2 Hitzekin ta zarataz  
nahiz sarri **tapatu**  
ihes ibili arren  
berriro **topatu!**  
**Bakardadearekin  
nahi luke elkartu**  
ta gozamenerako  
biek elkar **hartu**.  
**Bakardadearekin  
nahi luke elkartu**  
ta nik ikasi nahi dut  
nolatan **gozatu**.
- 3 Mikrofono aurreko  
pentsatze **garaia**  
ondoren txaloekin  
apurtzeko **nahia**.  
**Sormenerako bide  
tresna eta gaia**,  
entzuleen arretan  
erritu **lasaia**.  
**Sormenerako bide  
tresna eta gaia**  
hitzaren adiskide,  
hitzaren **etsaia**.
- 4 Opor garaian eta  
igande **goizetan**  
eskoletako gela-  
**jolastokietan**  
**a zer isiltasuna  
bazter guztietan!**  
Naturan presente da  
kilkerren **hotsetan**.  
**A zer isiltasuna  
bazter guztietan**,  
baina arreta daukat  
**makinatxoetan**.
- 5 Sentimenduetara  
nahi badut **hurbildu**  
eta bake-bakean  
neure baitan **bildu**  
**buruko batukada  
beharko isildu!**  
Pentsamendu-zaratak  
bake dena **hil du**.  
**Buruko batukada  
beharko isildu**  
eta soinu gabeko  
mundura **amildu**.



Egunerokoan egoten al gara  
uneren batean isiltasunean,  
gailuak itzalita?  
Behaketa lan bat egingo dugu:  
aste honetan zehar erreparatu  
egingo dugu non eta noiz  
bizitzen ditugun isiltasun-uneak  
eta datorren astean partekatu  
egingo dugu gelan.